

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko maiatza

## Aurkibidea

1. EAEko BPGaren aurrerapena

2. Lan merkatua

3. Inflazioa

4. Inguruneko hazkundera

5. PMI konposatua

6. NDFren aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia hondoratu egin zen aurteko lehen hiruhilekoan.

BPGak %3,0ko beherakada jaso zuen urte arteko tasan, aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa.

### 2. Langabeziaren gorakadak aurreko krisiaren erregistroak gainditu ditu.

Martxoaren eta apirilaren artean, langabezia erregistratuak 22.000 pertsona gehiago zenbatu zituen.

### 3. Inflazioak mailarik apalena jaso du 2016ko abuztutik.

Petrolioaren merkatzea dago inflazioaren jaitsiera horren atzean.

### 4. Koronabirusak munduko hazkundera eragotzi du.

Euroguneko BPGa %3,3 gutxitu zen lehen hiruhilekoan eta Espainiarena, berriz, %4,1.

### 5. PMI indizeek konfinamenduak ekonomia garatuetan duen eragina erakusten dute.

Apirileko PMI indize konposatuak 13,5eko balioa jaso du Eurogune osorako.

### 6. NDFk munduko ekonomiarentzako aurreikuspenak eguneratu ditu.

Urte honetarako %3,0ko beherakada zenbatetsi du eta datorren urtean susperraldi partziala ezagutuko da.

### 7. Hilabeteko laburpena.

Konfinamenduak faktura garrantzitsua pasa dio munduko ekonomiari.



# EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

## Euskal ekonomia hondoratu egin zen urteko lehen hiruhilekoan

### BARNE PRODUKTU GORDINA


Urte arteko aldakuntza tasa

#### URTE ARTEKO BPG-A

1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA

**-%3,0**

Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurre-rapenak adierazten du EAEko ekonomia -%3,0 hondoratu zela aurtengo lehen hiruhilekoan, urte arteko tasan. Covid-19ko pandemiaren ondorioz martxoko bigarren hamabostalditik aurrera hartutako neurri bereziek aurrerarik ez duen eta nekez aurreikus zitekeen jarduera ekonomikoaren uzkurdua izugarria ekarri dute berekin. Beherakada garrantzitsu horrek nabarmen gaintitzen ditu Eusko Jaurlaritzak egindako kalkuluak (% 0,1), konfi-



namendua hilabete batez luzatuko zela aurreikusten baitzuen. Hiruhileko arteko tasetan, bilakaera are okerragoa izan zen; izan ere, beherakada -%4,5era arte zabaldu zen. Tasa hori ez da lehenago ezagutu EAEko azken aldiko historian. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, atzerakada hori orokorra izan da sektore guztietan, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, martxoaren azken bi asteetan ekoizpen jardueretan izandako aldaketa edo geldiarazte efektuen ondorioz.


### BARNE PRODUKTU GORDINA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

#### HIRUHILEKO ARTEKO BPG-A

1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA

**-%4,5**



## ENPLEGUA


Urte arteko aldakuntza tasa

### URTE ARTEKO ENPLEGUA

1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA

**-%3,1**

Lan merkatuari dagokionez, enpleguaren uzkuartzea, urte arteko tasan, -% 3,1era iritsi zen. Enpleguaren beherakada handi horren arrazoia, neurri handi batean, martxoaren erdialdetik aurrera hartu diren ERTE kopuru handia da. Datu hori ere ez dator bat Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin. Izan ere, aurreko erregistroekin alderatuta, enplegu sorreraren beherakada handia jasotzen zuen (%1,3ko jaitsiera aurreikusten zen), baina Eustatek kalkulaturako datutik urrun dago. Hiruhileko arteko datuei dagokienez, enplegua % 4,1 jaitsi da.



Bilakaera ekonomikoak duela aste batzuk espero zena baino askoz okerragoa dirudien arren, Eustatek ohartarazi du EAEko jardura ekonomikoari buruzko lehen kalkulu horiek, konfinamendu aldiaren zati bat barne hartzen dutenak, "zuhurtziaz" aztertu behar direla. Hain zuzen ere, eragile ekonomiko guztiak azken asteetan bizitzen ari diren egoera oso konplikatuarekin, zaila da kalkulu ekonomiko ororen oinarri den informazioa biltzea, are gehiago sisteman zenbait adierazleren aurreikuspenak sartzen direnean.


## ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

### HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA

**-%4,1**



Iturria: Eustat.



# LANGABEZIA ERREGISTRATUA

## Langabeziaren gorakadak aurreko krisiaren erregistroak gainditu ditu.

Lanbideko bulegoek apirilari buruz emandako azken datuen arabera, 138.643 pertsona zeuden langabezian hilabete horretan, hau da, martxoan baino 10.430 gehiago. Hori horrela izanda, osasun alarma ezarri zenetik igaron diren bi hilabete hauetan 22.000 pertsona inguru sartu dira langabeziaren zerrendetan. Orobat, garrantzitsua da aldi baterako erregulatzeko espedienteetan dauden eskatzaileen bilakaera nabarmentzea; izan ere,

langabetzat jotzen ez badira ere, gaur egun ez dira beren lanpostua betetzen ari. Kolektibo hori 86.000 pertsonatik gorakoa da dagoeneko, eta kopuru handi bat gehitu beharko litzaieke, oraindik aitortzeke daudenak. Beste hilabete batez, langabeziaren igoerak gehiago eragin zien gizoni (%26,2) emakumeei baino (%15,1), eta eragin nabarmena izan zuen 25 urtetik beherako biztanleen artean (%33,1).

### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. APIRILA

# +%19,9




### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




## LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreko hilean bezala, igoerak sektore guztietan izan zuen eragina, baina batez ere zerbitzuetan (%23,5) eta industrian (%22,2). Izan ere, zerbitzuen pisua kontuan hartuta, gorakada handiak izan ziren termino absolutuetan. Zehazkiago, zenbait jarduera adarretan, hala nola ostalaritzan eta jatetxeetan, txikizkako merkataritzan eta garraioan, langabeziaren gorakada nabarmena izan zen. Lehen jardueran, igoera hori arindu egin zen, etxez etxe-

ko banaketa baimendu egin baita konfinamendualdi horretan. Txikizkako merkataritzari dagokionez, berriz, horrek funtsezkoak ez diren produktuen merkataritzarekin lotutako salgaien beherakada nabarmena eragin zuen, eta jaitsiera hori elikagaien eta osasuneko produktuen banaketaren bilakaerarekin konpentsatu zen. Azkenik, garraioak kalte handia izan zuen bidaiarien kopuruak behera egin zuelako.

### LANGABEAK

	2019ko apirila	2020ko apirila	Aldakuntza
<b>LANGABEAK GUZTIRA</b>	<b>115.644</b>	<b>138.643</b>	<b>22.999</b>
<b>LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA</b>			
Araba	19.113	23.403	4.290
Bizkaia	66.289	78.061	11.772
Gipuzkoa	30.242	37.179	6.937
<b>SEXU ETA ADINAREN ARABERA</b>			
Gizonak	49.672	62.705	13.033
Emakumeak	65.972	75.938	9.966
25 urtetik beherakoak	8.034	10.694	2.660
25 urte baino gehiago dutenak	107.610	127.949	20.339
<b>EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA</b>			
Lehen arloa	2.627	2.764	137
Industria	13.691	16.730	3.039
Eraikuntza	8.259	9.475	1.216
Zerbitzuak	76.479	94.462	17.983
Lehenago lan egin dutenak	101.056	123.431	22.375
Lehenago lan egin ez dutenak	14.588	15.212	624
<b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK</b>			
Langabe atzerritarrak	18.298	22.499	4.201

Iturria: SEPE.




Departamento de  
Hacienda y Economía

# INFLAZIOA

## Inflazioak mailarik apalena jaso du 2016ko abuztutik

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa




Martxoko KPI indizea %0,1ean kokatu zen, joan den otsaileko datuekin alderatuta zazpi hamarren jaitxi ondoren. Hori da 2016ko abuztutik izan duen mailarik baxuena. Kontsumoko prezioen igoeraren apaltzea erregaien prezioen beherakada nabarmenaren ondorio izan zen. Horrela, inflazioak bi hilabetez jarraian egin du behera eta urte hasieran jaso zuen %1,4 tasa hartatik urrundu da.

### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak


	2018	2019	2020ko martxoa	Ekarpena
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	1,6	1,0	0,1	0,1
<b>Azpiko inflazioa (%81,2)</b>	0,9	1,0	1,2	0,9
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,7	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,7	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,4	0,6
<b>Hondar inflazioa (%18,8)</b>	4,6	0,8	-4,5	-0,8
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	3,6	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-9,9	-1,1

### AZPIKO INFLAZIOA



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Erregaien prezioek beheranzko joerarekin jarraitu zuten. Izan ere, Covid-19ko pandemiak sortutako krisiak mundu mailako petrolio eskariaren hondoratze nabarmena eragin zuen, apiril amaieran bere prezioa upel bakoitzeko 5 dolar pasatxoan kokatuz, 1985an hasi zen serie osoan lortu ez ziren balioak direlarik. Horregatik guztiagatik, garraioa eta etxebizitza izan ziren, berriz ere, inflazioari eusteko eragin handiena izan zuten

taldeak, lehenengoak 4,1 puntu egin baitzuen behera eta bigarrenak, berriz, puntu oso bat. Halaber, aisialdiak eta kulturak %0,3tik -%0,3ra egin zuten behera, pakete turistikoaren prezioak jaitsi egin zirelako. Aitzitik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak garestitu egin ziren, koronabirusaren krisiak eragindako hornikuntza arazoengatik.

### KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2020ko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>0,1</b>	<b>0,0</b>	<b>0,7</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,5	2,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,2	0,5	3,0
Jantziak eta oinetakoak	1,2	1,1	1,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-4,7	-4,8	-0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,3	0,4	0,7
Osasuna	0,4	0,3	0,8
Garraioa	-2,5	-2,4	-0,6
Komunikazioak	0,8	0,7	-1,3
Aisia eta kultura	-0,3	0,0	0,1
Hezkuntza	1,4	0,9	0,4
Jatetxeak eta hotelak	1,7	1,9	1,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,3	1,4	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.




# INGURUNeko HAZKUNDEA

## Koronavirusak munduko hazkundera eragotzi du

### TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPG-A  
1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA  
-% 6,8




Txinako BPGak %6,8 galdu zuen lehen hiruhilekoan. 1976tik izandako lehen atzeraldia da hori eta koronabirusaren krisiaren ondorioz gertatu da, bertako ekonomia gelditu egin zelako. Uzkuordura hori analistek aurreikusituzena baino handiagoa izan da, eta sektore guztiei eragin zien. Hain zuzen ere, nekazaritzaren balio erantsia %3,2 jaitsi zen, industriarena, berriz, %9,6 eta zerbitzuena, azkenik, %5,2. Martxoan, pandemia behera egiten hasi zenean, industriaren ekoizpena %11,0 murriztu zen, eta txikizkako salmentak, berriz, %15,8.

AEBetan, BPGaren hiruhileko arteko tasa %4,8 jaitsi zen, eta urte artekoa, berriz, %0,3an geratu zen, Covid-19k eragindako kaltea martxoaren amaierara mugatu zen arren. AEBetako ekonomiak ez zuen antzeko egoerarik izan 2009ko laugarren hiruhilekotik. Inbertsio pribatuak, esportazioek eta inportazioek bat-bateko jaitsiera ezagutu zuten. Kontsumo pribatuak eremu positiboan jarraitzea lortu zuen, baina hazkundera txiki batekin, eta soilik kontsumo eta inbertsio publikoek eutsi zioten errotmoari.

### AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa


AEBETAKO BPG-A  
1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA  
%0,3





## EUROPAR BATASUNA 27EN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2020ko martxoan, Europar Batasuneko estatu kideak hasi ziren koronavirusari eusteko neurriak zabalki hartzen. Hain zuzen ere, 2019ko laugarren hiruhilekoan bertako BPG %1,3 hazi ostean, Kontinente Zaharraren ekonomia %2,7 uzkuritu zen, Eurostatek argitaratutako lehen kalkuluaren arabera. Eurogunearen kasuan, berriz, jaitsiera hori %3,3ra zabaldu zen. Bi kasuetan, jardura ekonomikoaren beherakada hori 2009ko hirugarren

## EUROGUNeko BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




hiruhilekotik inoiz gertatu den nabarmenena izan zen. Lan merkatuari dagokionez, Covid-19ren ondorioak ez dira islatzen, oraingoz, langabeziaren datuetan, martxoan apenas aldatu baitziren urtarrileko eta otsaileko mai-lekin alderatuta. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko langabezia tasa %6,6koa izan zen martxoan, eta Euroguneak %7,4koa, aurreko erregistrotik hamarren bat gora bakarrik.

INEk argitaratu duen lehen kalkuluaren arabera, Espainiako ekonomia %4,1 uzkuritu zen aurteko lehen hiruhilekoan, 2013tik izan duen jaitsierarik handiena delarik. Barne eskariak 4,3 puntu kendu zizkion jardura ekonomikoari, kontsumo pribatuaren (-%6,7) eta inbertsioaren beherakada handiak baldintzatuta. Kanpo sektoreak, berriz, BPGari bi hamarren eman zizkion, esportazioak inportazioak baino gutxiago gutxitu zirelako. Lan merkatuari dagokionez, lan egindako orduen arabera neurtutako enpleguak -%4,2ko aldaketa izan zuen, 2019ko lehen hiruhilekoan lortutako erregistroa baino 5,6 puntu txikiagoa.

## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.



# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## PMI indizeek konfinamenduak ekonomia garatuetan duen eragina erakusten dute

Apirileko PMI adierazleen argitalpenak, Markit enpresak kalkulatzeko baititu, harritu egin du haren erorketaren intentsitateagatik. Hain zuzen ere, euroaren eremuko indize konposatua 13,5ean kokatu da, aurrekaririk gabeko balioa baita, Atzeraldi Handian lortutako minimoa baino nabarmen txikiagoa dena. Orobat, ekoizpenaren jaitsiera hori oso denbora laburrean gertatu da, otsailetik


apirilera bitartean, eta eremu horretako herrialdeetan adostutako konfinamenduaren ondorio zuzena da. Eragina manufaktura zein zerbitzuetan hautematen da, baina azken sektore horrek erakusten du beheranzko joera biziena, 11,7ra iritsi baita, manufaktura indizeak 33,6ko balioa izan duen bitartean.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020KO APIRILA  
**13,5**




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



### PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




### PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeka egindako analisiak erakusten du apirilean indize konposatuak izan duen ekoizpen galera herrialde garatu guztietan gertatu dela, nahiz eta aldeak egon bakoitzaren intentsitatean. Hala, Europako herrialdeek beherakada nabarmenagoak jaso dituzte Japoniak eta AEBek baino. Hain zuzen ere, Alemaniaren indizea 17,1ean dago eta Frantziarena, berriz, 11,2an. Japoniaren kasuan, 27,8ra iristen da balioa, eta Estatu Batuetan, berriz, 27,4ra. Azkenik, Erresuma Batuak 12,9ko indize konposatua du. Kasu guztietan, zerbitzuek industriak baino kalte handiagoak izan dituzte konfinamenduaren ondorioz.


### PMI KONPOSATUA. JAPONIA



### PMI KONPOSATUA. AEB



### PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA




Iturria: Markit.

# NDF-REN AURREIKUSPENAK

## NDFk munduko ekonomiarentzako aurreikuspenak eguneratu ditu

### MUNDUKO BPG-A

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

NDFren urtarrileko txostenetik apirileko azken argitalpenera bitartean, munduak aldaketa aparta jasan du Covid-19ren eraginez. Osasun larrialdiak aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa ekarri du berekin. Halaber, shockaren iraupenari eta intentsitateari buruzko ziurgabetasuna maximoa da.


Oinarrizko eszenategi batean, NDFk aurreikusten du munduko hazkundearen beherakada handia izango dela,  $-3,0$  2020an. 2021erako, susperraldi partziala espero da, urte arteko % 5,8ko tasarekin, baina krisiaren aurreko urteetan BPGaren mailak izan zuen joeraren azpitik.

### NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>2,9</b>	<b>-3,0</b>	<b>5,8</b>	<b>-6,3</b>	<b>2,4</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>1,7</b>	<b>-6,1</b>	<b>4,5</b>	<b>-7,7</b>	<b>2,9</b>
AEB	2,3	-5,9	4,7	-7,9	3,0
Eurogunea	1,2	-7,5	4,7	-8,8	3,3
Alemania	0,6	-7,0	5,2	-8,1	3,8
Frantzia	1,3	-7,2	4,5	-8,5	3,2
Italia	0,3	-9,1	4,8	-9,6	4,1
Espainia	2,0	-8,0	4,3	-9,6	2,7
Erresuma Batua	1,4	-6,5	4,0	-7,9	2,5
Japonia	0,7	-5,2	3,0	-5,9	2,5
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>3,7</b>	<b>-1,0</b>	<b>6,6</b>	<b>-5,4</b>	<b>2,0</b>
Txina	6,1	1,2	9,2	-4,8	3,4
India	4,2	1,9	7,4	-3,9	0,9
Errusia	1,3	-5,5	3,5	-7,4	1,5
Brasil	1,1	-5,3	2,9	-7,5	0,6


## EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## AEB-ETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFk eszenategi are ezkorragoak kalkulatu dituzte pandemiaren hedapena kontrolatzea lortzen ez bada edo enpresen eta enpleguaren gaineko eraginak zorrotzagoak eta iraunkorragoak badira.

Erakundeak funtsezkotzat jotzen du gobernuek osasunaren arloan eginiko gastua handitzea, pandemia honen edo beste batzuen balizko agerraldien aurrean behar diren gaitasuna eta baliabideak emateko.

Orobat, zerga, moneta eta finantza arloetan ere ezohiko politikak eskatu ditu. Gainera, alde anitzeko lankidetzaren alde egiten du, non nazioarteko lankidetzak bere laguntza bideak areagotu beharko dituen eta munduko ekonomian normaltasun berri bat bermatzeko ahaleginak zuzendu beharko dituen.

## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.



## Konfinamenduak faktura garrantzitsua pasa dio munduko ekonomiari

Apirilean hasi ziren ezagutzen ekonomia eta arlo ekonomiko nagusietarako lehen hiruhilekoko BPGaren aurrerapen datuak. Kasu gehienetan, ohartarazten da eskainitako informazioa, datu batzuen faltan eta datu horiek lortzeko izan diren atzerapenen ondorioz, koiunturako adierazle nagusi batzuetarako egindako aurreikuspenetan oinarritzen dela. Zuhurtzia horrekin, INEk **Espainiako ekonomiarentzat hiruhileko arteko %5,2ko jaitsiera kalkulatu du, urte arteko tasan %4,1eko beharakada dena**. Enplegurako, erakunde horrek bi estatistika desberdin eman ditu: benetan lan egindako orduak eta lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Lehen kasuan, hiruhilekoen arteko jaitsiera %5,0 da; bigarreanean, berriz, %1,9koa baino ez da, lanaldiaren murrizketa nabarmena dela eta.

Bestalde, Eurostatek euroaren eremuko eta Europar Batasuneko zenbatespenak zabaldu ditu. Lehen kasuari dagokionez, **aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eremuaren jaitsiera %3,8 izan da, eta bigarreanean, berriz, %3,5**. Orobat, urte arteko tasak -%3,3 eta -%2,7 izan dira. Atlantikoaren beste aldean egoera ez da hobe. AEBetako azken urteetako hedapen ziklo luzeena hiruhileko arteko %4,8ko jaitsiera batekin amaitu da, nahiz eta urte arteko tasa oraindik pixka bat positiboa izan den (% 0,3).

BPGren lehen hiruhilekoko emaitza txar horiekin batera, **apirileko aurreikuspen nabarmen okerragoak etorri ziren**. Adierazle horietako bat da sentimendu ekonomikoaren indizea da, Europako Batzordeak argitaratzen duena. Bada, Eurogunearen kasuan, martxoan ikuspegi negatibo samarra izatetik (94,2) apirilean ia aurrekaririk gabeko ezkortasuna izatera igaro da (67,0). Ez da kontsolamendu handikoa jakitea 2009ko martxoan 65,5era iritsi zela. Eta bai, **inoiz erregistratu den datu-rik txarra da zerbitzuetan, txikizkako merkataritzan eta finantza alorreko zerbitzuetan**. Herrialdeka aztertuta, okerragoa orokorra da, baina alde handia dago Frantziak lortutako balioaren (82,7) eta Erresuma Batuak lortutakoaren (62,4) artean. Bi mutur horien erdian daude Espainia (73,3) eta Alemania (72,1). PMI konposatuaren datuak ildo beretik doaz, eta bat-bateko eta orain arte ezezagunak ziren jaitsierak erregistratu dituzte serie historikoetan. Adibidez, euroaren eremuko adierazlea martxoaren 29,7tik apirilaren 13,5era jaitsi da.

EAEko ekonomiaz ezagutarazi den koiunturako informazioen artean, nabarmentzekoa da lehen hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren argitalpena. Eustaten arabera, **EAEko BPGa urte arteko %3,0 jaitsi zen, eta hiruhileko arteko %4,5 gutxitu zen aldi horretan**. Ekoizpen sektore guztiek jaitsiera nabarmena ezagutu zuten, nahiz eta haien kuantifikazioa ez den iritsiko bigarren estimaziora arte, hots, ekainaren hasiera arte. Enpleguari dagokionez, kontu ekonomikoen arabera, lanpostuen urte arteko jaitsiera %3,1 izan da, eta hiruhileko arteko tasa, berriz, %4,1. Datuak ez bairik gabe txarrak diren arren, **okerrena bigarren hiruhilekorako espero da**. Kontuan izan behar da osasun alarmaren egoerak eta konfinamendu neurriek lehen hiruhilekoaren hamabostaldi batean baino ez zutela eragin, baina, neurri handiagoan edo txikiagoan, bigarren hiruhileko osora hedatuko direla. Apirileko lan merkatuaren informazioak dagoeneko ematen ditu geldialdi ekonomikoaren intentsitateari buruzko argibideak. Alde batetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,5 egin du behera urtetik urtera, eta langabeziak, berriz, %19,9 gora.

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>3,0</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>-3,0</b>
Barneko azken kontsumoa	2,5	1,9	2,1	1,9	1,9	1,7	—
Familien kontsumoa	2,7	1,9	2,2	1,9	1,8	1,5	—
Administrazioaren kontsumoa	1,6	2,1	1,9	2,1	2,2	2,2	—
Kapital eraketa gordina	4,7	2,8	4,0	2,5	2,2	2,4	—
Barne eskaria	3,0	2,1	2,6	2,0	2,0	1,9	—
Esportazioak	3,0	0,4	-1,4	2,8	-0,9	1,3	—
Inportazioak	3,0	0,4	-0,8	2,6	-0,9	0,9	—
Lehen arloa	7,9	0,6	1,7	-0,1	0,2	0,4	—
Industria eta energia	2,5	1,1	0,4	1,0	0,8	2,3	—
Eraikuntza	4,1	3,1	4,6	3,2	2,9	1,9	—
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,2	—
Balio erantsi gordina	2,8	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,1	2,2	2,1	1,8	2,3	—
Enplegua	2,6	1,6	1,8	1,7	1,6	1,3	-3,1

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020				2020	2021
	I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>0,1</b>	<b>-6,2</b>	<b>-4,5</b>	<b>-3,9</b>	<b>-3,6</b>	<b>2,6</b>
Barneko azken kontsumoa	0,7	-4,6	-3,2	-2,8	-2,5	2,4
Familien kontsumoa	-0,3	-8,1	-4,9	-4,3	-4,4	3,5
Administrazioaren kontsumoa	4,4	8,4	3,1	2,6	4,6	-1,2
Kapital eraketa gordina	0,5	-7,6	-4,8	-4,5	-4,1	3,2
Barne eskariaren ekarpena	0,7	-5,5	-3,8	-3,3	-3,0	2,7
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,8	-0,7	-0,6	-0,6	-0,1
Lehen arloa	7,8	-9,6	-6,7	-9,9	-4,6	5,9
Industria	-1,5	-6,8	-4,0	-3,5	-3,9	3,0
Eraikuntza	0,6	-4,6	-3,2	-2,9	-2,5	1,7
Zerbitzuak	0,4	-5,8	-4,2	-3,6	-3,3	2,2
Balio erantsi gordina	0,1	-6,0	-4,1	-3,6	-3,4	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	0,4	-7,8	-7,5	-6,6	-5,4	3,8
Enplegua	-0,3	-4,0	-2,2	-0,4	-1,7	1,6

# ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
<b>BPG</b>	<b>2,4</b>	<b>2,0</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>1,8</b>	<b>-4,1</b>
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	1,3	0,7	1,3	1,2	-6,7
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,3	2,3	2,2	2,4	3,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,8	4,8	0,5	1,4	0,6	-6,7
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	5,8	0,2	1,1	-0,1	-8,8
- Eraikuntzan	6,6	0,8	4,0	1,7	0,0	-2,2	-11,9
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	8,3	-2,5	2,4	2,6	-4,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,2	0,4	1,9	2,6	4,0	4,3
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	2,1	1,1	1,5	1,3	-4,3
Esportazioak	2,2	2,6	0,8	2,6	3,6	3,3	-6,3
Inportazioak	3,3	1,2	0,4	-0,2	2,7	2,1	-7,4

## BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
Unicredit	-15,5	9,5	CEPREDE-UAM	-6,2	4,5
Espainiako Gobernua	-9,2	6,8	Economist intelligence Unit	-6,0	4,0
AFI	-8,9	—	Consensus Forecast	-5,7	5,4
Repsol	-8,1	14,1	Oxford Economics	-5,6	4,2
NDF	-8,0	4,3	Barclays	-5,0	4,7
BBVA	-8,0	5,7	Natixis	-4,2	2,7
CEOE	-8,0	—	UBS	-4,0	2,5
FUNCAS	-7,0	5,4	Fitch Ratings	-3,9	3,4
HSBC	-7,5	7,0	La Caixa	-3,6	5,7
Espainiako Bankua	-6,8	5,5	IHS Markit	-1,8	1,0
Moody's Analytics	-6,8	5,7			

Iturria: Unicredit, Espainiako Gobernua, AFI: analistas financieros internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CEOE: Confederación española de organizaciones empresariales, FUNCAS, HSBC, Espainiako bankua, Moody's Analytics, CEPREDE, Economist intelligenceUnit, Consensus Forecast, Oxford Economics, Barclays, Natilix, UBS, Fitch Ratings, La Caixa, IHS Markit.



# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	
AEB	2,9	2,3	2,7	2,3	2,1	2,3	0,3
Txina	6,6	6,1	6,4	6,2	6,0	6,0	-6,8
Japonia	0,3	0,7	0,8	0,9	1,7	-0,7	—
Kanada	2,0	1,6	1,5	2,0	1,6	1,5	—
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,7	1,5	1,6	1,3	-2,7
Eurogunea	1,9	1,2	1,4	1,2	1,3	1,0	-3,3
Alemania	1,5	0,6	1,0	0,3	0,6	0,5	—
Frantzia	1,7	1,3	1,3	1,5	1,5	0,9	-5,4
Erresuma Batua	1,3	1,4	2,0	1,3	1,2	1,1	—
Italia	0,8	0,3	0,2	0,4	0,5	0,1	-4,8
Herbehereak	2,6	1,7	1,9	1,6	1,8	1,6	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2020KO APIRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-4,0	3,9	0,8	1,8	8,4	6,9
Japonia	-3,3	2,1	-0,1	0,2	2,8	2,9
Kanada	-3,9	4,1	1,0	1,9	8,8	7,1
Europar Batasuna	-4,6	4,5	0,6	1,3	—	—
Eurogunea	-5,7	5,4	0,4	1,3	9,1	8,5
Alemania	-5,0	4,5	0,7	1,4	5,7	5,6
Frantzia	-5,4	5,1	0,4	0,3	9,2	8,8
Erresuma Batua	-5,4	4,7	1,0	1,6	6,5	5,9
Italia	-7,5	4,5	-0,2	0,6	11,2	11,0
Espainia	-5,7	5,2	-0,4	1,3	—	—
Herbehereak	-4,6	5,0	0,7	1,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.